

«Proiektu soberanistan abstentzioak balio politiko handia du», LABen ustez

Euskal herritar guztiak kabituko diren proiektu baten alde agertu da Rafa Diez

Axun Erzibengoa / Donostia

LAB sindikatuak martxoaren 12ko hauteskunderen abstentzioaren aldeko jarrera har dezan eskatu dio langileriari. Proiektu soberanistan abstentzioa garrantzitsua dela adierazi du Rafa Diez. Euskal Herrian abiatutako prozesuan ezin dira errepikatu 1977ko akatsak Diezen ustez; beharrezkoa da euskal herritar guztiak kabitze moduko proiektua izatea.

ESPAINIAKO hauteskunderen abstentzioaren aldeko jarrera hartzea Biltzar Nazionalan erabaki zuen LAB sindikatuak, atzo jakinarazi zuten. Bozketan 113 boto izan ziren abstentzioaren alde, bat kontra eta 15 abstentzio.

Euskal Herrian bizi den momentuan euskal langileak zeresan handia duela uste du LABek. Ildo horretan, proiektu soberanistan eta eraikuntza nazionalen abstentzioaren aldeko jarrera garrantzitsutzat jo zuten.

Rafa Diez idazkari nagusiak Euskal Herriari bizi duen unearen garrantzia nabarmendu zuen. Une honetan abiapuntu berri bat behar dela esan zuen, eta abstentzioak «balio politiko eta pedagogiko handia» duela. Abstentzioa herri honentzako



Jose Luis Rezabal, Itziar Lopategi, Rafa Diez eta Santos Indakoetxea LABeko kideak, atzoko agerraldian.

«errebeldia ekintza» bat dela azaldu zuen,

Orain artekoak ez duela balio adierazi zuen Diezek: «Autonomien Estatuak porrot egin du. Esparru hori ez da bat egite puntua normalkuntza politikorako», adierazi zuen, eta *statu quo*-a mantentzeak «aurkaritza» ekarriko duela azaldu zuen. Prozesu autonomikoak, zatiketa instituzionala ekartzeaz gain, bilakaera ekonomikoan ere okerreko eragina izan duela azaldu zuen. Hala, erabaki ekonomikoetan langileek

parte izan behar dutela azaldu zuen, eta erabaki horiek euskal instituzioetan hartu behar direla.

Akats berak egin gabe

Egungo esparrua agortua dagoela azpimarratu ostean, prozesu berri baten beharraz hitz egin zuen. «Baina ezin ditugu 1977ko akatsak berriz egin. Funtsezko baldintza bat izan behar du: euskal herritar guztiok kabitzea proiektuan. Horretarako, beharrezkoa da euskal herritarren boronda-

tea errespetatzea». Alderdi abertzale eta aurrerakoiek, hori kontuan izanik, prozesu eratzailea hasi behar dutela azaldu zuen. «Euskal subiranotasunaren errespetutik edozein ideia defenda daiteke, kanpotik ez» azaldu zuen.

Madrilen Euskal Herriak herri gisa egon behar duela dio, eta bide horretan abertzaleek indarrak batu behar dituztela. Hala, alderdi guztiak bat egin eta Madrilera herri moduan joatea erabakiko balute LABek gustura hartuko lukeela esan zuen.

Hauteskunde Batzorde Zentralak doako publizitate tarteak erabiltzea galarazi dio EHri

Agentziak / Madril

HAUTESKUNDE Batzorde Zentralak atzo jakinarazi zuenez Euskal Herriarrok taldeak ez du doako publizitate tarteak erabiltzeko eskubiderik izango, martxoaren 12ko hauteskunderen begira. Hauteskunde batzordeak dienez, esku-bide hori soilik dagokio hautetsi izatea helburu duten alderdiei. Halaber, doako tarteak botoak lortzeko baliatu behar direla dio batzordeak.

Hauteskunde kanpainako leloari buruz eta datorren larunbatean Donostian abstentzioaren alde egingo duten manifestazioari buruz batzordeak ez du eragozpenik ikusten. Ildo horretan, abstentzioa bultzatzea zilegi dela azaldu zuen batzorde elektoralak.

Gipuzkoako Hauteskunde Batzordeak galdetu zion gaiari buruz Batzorde Zentralari, PPk EHren hautagaitzak errekurritu ondoren. Errekurtso hori atzera bota zuen, baina doako tarteei buruzko iritzirik ez zuen eman Gipuzkoako batzordeak.

EHk atzo arratsaldean egin zuen bilera, gaia aztertzeko. Bestalde Iñaki Anasagasti EAJko kideak EHk doako tarteak erabiltzeko eskubidea duela azaldu zuen hauteskunde batzordea kritikatu.

EAJk abertzaleen «boto baliagarria» gura du

Joseba Arruti / Bilbo

EUZKO ALDERDI JELTZALEAK abertzaleen «boto baliagarria» eskuratu nahi du «inoiz baino gehiago» martxoaren 12ko Espainiako hauteskunde orokorretan. «Abstentzioaren eta parlamentuan eraginik izango ez duen botoaren aurrean, EAJri emandakoa da benetan gure interesak defendatzeko balioko duena», esan zuen atzo Iñaki Anasagastik EAJren kanpainaren aurkezpenean.

EAJk kanpainarako baliatuko duen dirutza 185 milioi pezetakoa izango da, eta

«kanpaina ezberdina» iragarri zuen, «gizartean nahasmena baitago ona denaren eta txarra denaren artean eta hadabide asko abertzaletasuna deabrutzen ari baitira».

Jeltzaleak Zuk erabaki lelopean egingo dute kanpaina; eta atzo aurkeztu zuten kartelean euskal herritarrek martxoaren 12an egin behar dituzten aukerak azaltzen dira; horien artean erabakitze eskaera eginez. EAJk 1996ko hauteskunde orokorretan lortu zituen emaitzak hobetzea espero du.



Paco Allende, Josune Ariztondo eta Iñaki Anasagastik aurkeztu zuten EAJren hauteskundeetako kartela.